

Erabakia, 2022ko azaroaren 16koa, UPV/EHUren Arabako Campuseko errektoreordetzarena, AHOSTEGUNAK ekitaldian parte hartzeagatik graduiko ikasleek kredituak lortu ahal izango dituztela aditzera ematen duena.

UPV/EHUko Arabako Campuseko Errektoreordetzak, Euskaltzaindiarekin batera Ahostegunak ekitaldia antolatu du. Aipatutako ekitaldia Euskaltzaindiaren Gasteizko egoitzan izango da, 2022ko azaroaren 17 eta 24an, baita 2022ko abenduaren 1ean ere.

Era honetako kultur jardueretan parte hartzea baliagarritzat jo da HAUTAZKO KREDITUAK lortzeko graduren bat ikasten ari diren ikasleentzat (hau da, aipatutako urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak araututako ikasketa planak, 2007ko urriaren 30eko 260. Zenbakiko EBO).

Jarraian aipatzen dira graduiko ikasketei aplikagarri zaizkien arautegiak:

Graduko ikasketetan kredituak transferitu eta onartzeko arautegiaren 66. artikuluari jarraiki (UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartu eta EHAAn 2012/06/19an argitaratutakoa), posible da unibertsitatearen errektoreordetzek antolatutako prestakuntzarako kultur ekintzengatik (ikastaro, mintegi, kongresu eta halakoak), **HAUTAZKO KREDITUAK** amortizatzea.

Jarduera hauengatik 1 kreditu ECTS baliokidetuko da 25 orduko.

Azkenik, unibertsitatearen egiturek antolatutako ekintzengatik unibertsitateko edozein ikasleri aitortuko zaio kredituak baliokidetu eta aitortu dakion, alde batera utzita zein titulaziotakoa den.

Resolución del 16 de noviembre de 2022, del Vicerrectorado del Campus de Álava de la UPV/EHU, por la que se da publicidad al hecho de que la participación en la actividad AHOSTEGUNAK será válida para la obtención de créditos para alumnado de Grado.

El Vicerrectorado del Campus de Álava de la UPV/EHU ha organizado junto con Euskaltzaindia la actividad Ahostegunak en Vitoria-Gasteiz. Dicha actividad tendrá lugar en la sede de Euskaltzaindia de Vitoria los días 17 y 24 de noviembre de 2022, así como el 1 de diciembre de 2022.

La participación en estas actividades es considerada válida para la obtención de CRÉDITOS OPTATIVOS por parte del alumnado que curse algún Grado (planes de estudio regulados por el Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, por el que se establece la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales, BOE nº 260 de 30 de octubre de 2007).

A continuación, se indican las normativas aplicables a los estudios de Grados:

En virtud del artículo 66 de la Normativa sobre reconocimiento y transferencia de créditos en los estudios de Grado, aprobada por el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU el 16 de mayo de 2012 y, publicada (BOPV 19/06/2012) es posible amortizar **CRÉDITOS OPTATIVOS** por actividades culturales formativas (cursos, seminarios, congresos, etc.), organizadas por los diferentes vicerrectorados de la universidad.

Para estas actividades se establece la equivalencia de 1 crédito ECTS por cada 25 horas.

Finalmente, las actividades organizadas por las estructuras de la Universidad tienen reconocimiento para amortizar créditos para todos los alumnos y alumnas de la Universidad, con independencia de la titulación en la que estuvieren matriculados.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Horregatik guztiagatik, honakoa

Por todo ello,

ERABAKI DUT:

RESUELVO:

Lehenengoa.- Aditzera ematea graduko ikasleek hautazko kredituak lortu ahal izango dituztela, Arabako Campuseko Errektoreordetzak, Euskaltzaindiarekin batera antolatutako Ahostegunak ekitaldian parte hartzen badute.

Primero.- Dar a conocer que la participación en la actividad Ahostegunak organizada por el Vicerrectorado del Campus de Álava junto con Euskaltzaindia, será válida para la obtención de créditos optativos por parte del alumnado de grado.

Aurreikusten da parte hartzaileen arduraldia jardunaldietan 9 ordukoa izango dela (0,36 kreditu ECTS lortzeko aukera).

Se estima que la dedicación de los participantes en las jornadas será de 9 horas (posibilidad de obtener 0,36 créditos ECTS).

Bigarrena.- Antolatzaileek jarraipena egingo diete ekintzetan parte hartzen duten ikasleei eta ziurtagiri bat emango diete, xehetasun hauek adierazita: zeintzuk jarduera egin dituen, zenbat ordutan, nork antolatuta, noiz eta non egin diren eta erabaki hau eman duen organoaren izena eta erabaki honen data.

Segundo.- Los organizadores establecerán el seguimiento del alumnado participante en las actividades que se desarrollen y entregarán a los alumnos y alumnas un certificado con la indicación expresa de: las actividades realizadas, horas correspondientes a las mismas, quién las ha organizado, fechas de las mismas, lugar de celebración, y fecha y órgano de emisión de la presente resolución.

Hirugarrena. - Ikasleek, UPV/EHUko Gestio Akademikorako Arautegiaren 63. artikuluan aipaturiko epeetan ziurtagiri hori aurkeztuko dute matrikulatutako ikastegiko idazkaritzan, legozkiekeen prezio publikoak (tasak) ordaindu ondoren, kreditu horiek espedientetan sar dakizkien.

Tercero.- Con este certificado los alumnos y alumnas se presentarán, en los plazos señalados en el artículo 63 de la citada Normativa de Gestión Académica de la UPV/EHU, en la Secretaría del Centro en el que estén matriculados para que, tras el abono de los precios públicos (tasas), sean incorporados a sus expedientes.

Sin./Fdo.: Manoli Igartua Olaechea
UPV/EHUko Arabako Campuseko errektoreordea
Vicerrectora de Campus de Álava (UPV/EHU)